



DONBASS: GERRA EUROPAREN BIHOTZEAN

Dokumentala estreinatu dute



Itsaso Zubiria Etxeberria
@itsasozubiria

Euskaldunok ezagun dugu proiektu bat martxan jartzeko diru-laguntza kolektiboaren ohitura. Zuk ere hartuko zenuen parte batean baino gehiagotan, irakurle, poltsa bidez, bonu edo errifa moduan, zozketaren batean edo zuzenean kontu-korrontean sartuta. Bada orain betiko laguntza ekonomikoari *crowdfunding* deitzen zaio. Interneten zertxobait moldatzen bazara ziur entzuna duzula hitza, eta akaso kanpainaren batean ere zure ekarpena egin izango duzu. Baina errifak karterako bazter ezkutuenean bezala galtzen diozu askotan pista *crowdfundingari*. Bere garaian bueltaka ibili zinela bai, baina askotan ez duzu jakiten azkenean dirurik bota zenuen ere, edo proiektua bera bideratzea lortuko ote zuten ere.

Nire kasuan adibide garbia da *Donbass: Gerra Europaren bihotzean* dokumentala. Egin ote nuen ekarpenik? Zer gertatuko zen proiektu horrekin?

Bai. Aurkeztu dute ikus-entzunezkoa Ibai Trebiño eta Mikel Arregi egileek.

Arrasaten, ekainaren 11n. Donbassen (Donets eta Lugansk eskualdeetan) egin zuten egonaldia 2015eko martxotik uztaile bitartean, Kieveko Maidan plazako mobilizazioen ondoren 2014ko otsailean ukrainar oposizioak orduko Yanukovitch presidentearen aurkako estatu kolpea ematearekin eta interes geopolitikoak tarteko piztutako gerra dokumentatzeko lanetan. Ukrainako armadak jo-puntuak izan dituen zibilen testigantzak jasotzeko aukera izan dute gerra frontean.

Kazetaritza lan bezala definitzen dute egileek dokumentala. Bi aldeek bertsoak jartzen dituzte mahai gainean, eta "komunikabide masiboek Ukrainako gerra zibilari buruz azaldu ez dutena" erakutsi nahi izan dute lan honekin.

ARGIAk dokumentalaren produkzioan eta hedapenean kolaboratu du, eta urte osoko lanaren ostean jada plazaratuta, asmoa dago Euskal Herrian, Espainian eta Portugalen emanaldi bira bat egiteko. ■

“Zorionak, zorionak eta zorionak egiten duzuen lanagatik! Txoministak, Twitterra, Bizitza da handiena (eskertzekoa jarraipen-inplikazioa), Lomce, elikadura, Mozal Legea... Ez dauka desperdiziorik!”

Amaia Urtzelai,
ARGIAkoa



Tolosako Galtzaundi euskara elkarteak gonbidatuta, Sormenetik ekimenean izan ginen, Benito Lertxundiren hitzaldian, ARGIA ezagutzera ematen.

Argia Eguneko egitaraua osatzeko bilera Ondarroan

Ekainaren 16an, osteguna, 19:00etan elkartuko gara Kofradian. Denak zaudete gonbidatuta, denon artean ahalik eta egunik ederrena antolatuz dezagun.

ARGIA IRRATIETAN

- **Euskal Irratiak:**
Astelehenetan, 8:00etan.
- **Euskalerrria Irratia:**
Astearteetan, 16:15ean.
- **Xorroxin Irratia:**
Astearteetan, 18:00etan.
- **Info7 Irratia:**
Asteazkenetan, 16:15ean.
- **Bizkaia Irratia:**
Asteazkenetan, 11:30ean.
- **Bilbo Hiria Irratia:**
Ostiraletan, 10:30ean.